



**2016KO UZTAILAREN 29KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeita bederatzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko uztailaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 58 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (107.880,59 €)takoa, onartzea erabakitzen da.

**III.- HEZKUNTZA ETA EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK.-**

Hezkuntza eta Euskarako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**San Benito Ikastola.-**

- Jarduerak antolatzeagatik 2016ko aurrekontuan izendatutako kopuruaren %50a, hau da, HAMAIIKA MILA ETA BOSTEHUN EURO (11.500 €) ematea.

Ikastetxeko eraikinaren mantenurako 2016ko aurrekontuan izendatutako kopuruaren %50a, hau da, HAMA ZAZPI MILA EURO (17.000 €) ematea.

**IV.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK.-**

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du:

**Jose Ramon Sala Elizondo.-**

- Zubierreka auzoko festen antolaketa egindako gastuetarako, eta lehen aurreratutako bostehun euroz (500 €) gain, beste HIRUROGEI ETA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (68,50 €) ematea.



V.- KIROLETAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Kirol Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du:

Lazkaoko Antzar Korrikalariak.-

- Ekainaren 11n antolatutako Lazkaoko II. Antzar Triatlói Eskolarrarengatik BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (250 €) ematea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeita lau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

